

EAJ-PNVk BERRIRO DIO BEHARREZKOA DELA OÑATIKO MERKATARITZARI ETA OSTALARITZARI BULTZADA HANDIAGO BAT EMATEA

- **Jeltzaleek urtez urte merkataritza eta ostalaritza babesteko proposamenak egin dituzte eta berriro diote ezinbestekoa dela Oñatiko merkataritza txikia ez desagertzeko neurriak hartzea.**
- **“Merkataritza eta ostalaritza beharrezkoak dira herri batean, horiek ematen diete bizia kaleei eta baita zerbitzuak herritarrei ere”**

Legealdi guztian zehar, EAJ-PNVk behin eta berriz aldarrikatu du merkataritza eta ostalaritza babestearen beharra. Jeltzaleek, herriko merkataritza txikiaren desagertzearen arazoaren jakitun, hainbat proposamena egin dituzte, zoritxarrez, udal gobernuak onartu ez dituenak. Oñatiko merkataritza txikiak dituen arazoak begi-bistakoak dira, horrek dakarren kaleetako bizi eta lanpostu galerarekin. “Urtetik urtera, Oñatiko merkataritza txikiaren egoerak okerrera egiten duela ikusten dugu” diote jeltzaleek, “arrisku larrian dagoen sektore bat da, bereziki herri txikietan, marka handien, azalera handien eta internet bidezko erosketengatik, besteak beste, eta beharrezkoa da Udaletik guztion bizitzan duten paper estrategikoa aitortzea eta bultzada bat emateko proiektuak, neurriak eta laguntzak martxan jartzea” jarraitu dute.

“Egoera larri honen jakitun, azken 3-4 urteotan sektoreari benetan laguntzeko proposamen zehatzak egin ditugu: merkataritzari laguntzeko Plana, diru-laguntzak teknologia berrietarako, belaunaldi aldaketarako... komertzioak berritzeko aholkularitza eta diru-laguntzak, belaunaldi erreleboa errazteko eskuragarri dauden lokalen inbentarioa. 2019rako, merkataritzaren eta ostalaritzaren egoeraren eta oñatiarren kontsumo ohituren inguruko azterketa egitea eskatu dugu, hori oinarri hartuta, urtez urteko neurri zehatzak jasoko dituen Plan bat egin ahal izateko, belaunaldi erreleboa, internet eta azalera handien konpetentzia bezalako arazoei irtenbidea bilatzeko. Eta bereziki, negozio berriei, tartean denda txikiei, lehen 3 urteetan alokairua finantzatzen laguntzeko diru-laguntzak, besteak beste”.

Turismoaren plan estrategikoa

EAJ-PNVk, halaber, turismo planaren errebisioa eskatu du azken lau urteotan. Plan estrategiko hau eguneratzeak helburu izango luke turismo jarduerak herriko merkataritza eta ostalaritzan duen eragina areagotzea, herriko denda eta tabernak ikusaraziko lituzkeen ibilbide edo zirkuituak eginez. Zehazki, helburua litzateke, turistak pasatzera ez mugatzea eta kontsumoa sustatzea ibilbide horien bitartez. Izan ere, Oñatin bisita turistikoak %16 igo badira ere 2018an, merkataritzan eta ostalaritzan honek ez du ia eraginik izan.

Beraz, “merkataritzari eta ostalaritzari benetako bultzada bat emateko neurri zehatzak proposatu ditugu, gainerako erakundeek dituzten programekin elkarlanean, jakina, bereziki Eusko jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin” diote jeltzaleek. “Herritarrak animatzen ditugu, gainera, gure herriko merkataritza txikian erostera, honek bizirauteko eta krisia gainditzeko aukera izan dezan. Izan ere, gure herria merkataritzarik eta ostalaritzarik gabe ez litzateke gauza bera izango. Merkataritza eta ostalaritza hiltzen uzten baditugu, gure herria ere hiltzen utziko dugu, horiek gabe gure kaleek ez bailukete bizirik izango eta zerbitzu asko ere galduko genituzke, Oñati bezalako herrietan izugarritzko garrantzia duten zerbitzuak, bereziki adineko pertsonentzako” amaitu dute.

OÑATIKO EAJ-PNVren UDAL TALDEA. Oñatin, 2019ko otsailaren 1ean

EAJ-PNV INSISTE EN LA NECESIDAD DE DAR UN MAYOR IMPULSO AL COMERCIO Y LA HOSTELERÍA DE OÑATI

- **Los jeltzales han realizado propuestas para apoyar al comercio y la hostelería año tras año e insisten en la necesidad de tomar medidas para frenar la desaparición del pequeño comercio de Oñati.**
- **“El comercio y la hostelería son necesarios en un municipio, son ellos quienes dan vida a nuestras calles y los que ofrecen servicios a la ciudadanía”.**

A lo largo de toda la legislatura, EAJ-PNV ha insistido en la necesidad de apoyar el comercio y la hostelería del municipio. Los jeltzales, conscientes del acuciante problema de la desaparición del pequeño comercio en el municipio, han realizado numerosas propuestas que, lamentablemente, no han sido aceptadas por el gobierno municipal. Es constatable la dificultad que atraviesa el pequeño comercio de Oñati, con lo que ello conlleva de pérdida de vida de las calles y pérdidas de puestos de trabajo. “Año tras año vemos que la situación del pequeño comercio en Oñati va a peor” afirman los jeltzales, “es un sector que está en grave riesgo, especialmente en los pueblos pequeños, por la invasión de las grandes marcas, las grandes superficies, las compras por internet... y es imprescindible que desde el Ayuntamiento se reconozca el papel estratégico que tiene en la vida de todas y todos y se implanten proyectos, ayudas y medidas para darle un impulso decidido” continúan.

“Conscientes de la grave situación, en los últimos 3-4 años venimos haciendo propuestas concretas para ayudar decididamente al sector: Plan de ayuda al comercio, subvenciones para las nuevas tecnologías, para el relevo generacional... Asesoramiento y subvenciones para financiar la renovación de comercios, inventario de locales disponibles para facilitar el relevo generacional. Para 2019, en concreto, se ha solicitado la realización de un estudio de diagnóstico tanto del estado del pequeño comercio y la hostelería como de los hábitos de consumo de las y los oñatiarras para, sobre esa base, realizar un plan de acción plurianual con medidas concretas que resuelvan problemas como el traspaso generacional, la competencia de internet y las grandes superficies. Y muy especialmente, establecer ayudas económicas-para la financiación del alquiler durante los tres primeros años para casos de nuevos negocios, entre ellos, los de pequeño comercio, entre otras medidas.”

Plan estratégico de turismo

EAJ-PNV lleva, asimismo, 4 años reclamando que se haga una revisión del plan de turismo. La actualización del plan estratégico que se viene pidiendo tiene por objeto, principalmente, que esta actividad turística revierta con mayor intensidad en el comercio y la hostelería del municipio, diseñando itinerarios/circuitos que permitan visibilizar para provocar un mayor consumo en los pequeños comercios y la hostelería del pueblo. El objetivo sería que los turistas “no pasen de largo”, creando para ello recorridos que atraigan el consumo, ya que, aunque en Oñati las visitas turísticas han crecido un 16% en 2018, el impacto de sus consumos en nuestro comercio y hostelería ha sido prácticamente nulo.

Por tanto, “planteamos una apuesta decidida, con medidas concretas, para dar un mayor impulso al comercio y hostelería local, obviamente, en colaboración con los programas que tienen otras instituciones, Gobierno Vasco y Diputación principalmente” afirman los jeltzales. “Además, animamos a la ciudadanía a comprar en nuestro pequeño comercio para que este pueda tener una oportunidad de subsistir y superar la crisis. Debemos ser conscientes de que nuestro municipio no sería lo que es sin comercio y hostelería. Si dejamos morir el comercio y la hostelería, dejamos morir nuestro pueblo, porque sin ellos, nuestras calles carecen de vida y perdemos unos servicios que en pueblos como el nuestro, son vitales, especialmente para personas de cierta edad” concluyen.